



## Euskaraz ikasteko eskubidea bermatzeko kanpaina

**TOLOSALDEA** ▶ 'Bai Eskolak Euskalduntzeari' sinadura bilketa kanpaina aurkeztu dute

**XEDEA** ▶ «Euskararen ofizialtasuna aitortzeko eta gauzatzeko» aldarria eskualde osora zabaltzeko nahi dute ▶ 2



L. ASENSIO

## Nesken txirrindulari talde berria, prest

**TOLOSA** ▶ Agustín Pagolaren zuzendaritzapean, 13 txirrindulari lehiatuko dira elite, junior eta kadete mailatan Tolosa CFrekin ▶ 3

**LEITZA** ▶

'Manuelen uzta'-ren inguruan solasean

Manuel Lasarteren bertsoak kantatuz ▶ 7

**TOLOSA** ▶

Lehenengo mailan lehiatuko dira Barduliako neskak

Espainiako Kopan lortu dute igoera Tolosaldea IKTko hainbat igerilarik ▶ 3



Asteburuan jokatu da Usabalen Espainiako Kopa. I. GARCIA

**IKAZTEGIETA** ▶

«Beharrari erantzunez», martxan da Haur Eskola

Sei umek erabiltzen dute ▶ 4





## TOLOSA ▶

**Gerontologiko berriaren aldeko sinadurak biltzen**

Etzi, larunbata, *Gerontologikoa ez itxi* Gerontologikoren aldeko plataformak zentro berri baten aldeko sinadurak biltzeko mahaia jarriko ditu berriro, 11:30etik 13:00etara, Trianguloan, Berdura plazan eta Iparragirren. Bestalde, datorren astean dendaz denda pasatuko direla ere jakinarazi dute, lelo berria jasotzen duten kartelak banatzeko.

## TOLOSA ▶

**Enrique Zalduaren erakusketa, gaurtik aurrera**

Gaur inauguratuko dute, Aranburu Jauregiko erakusketa gelan, Enrique Zalduaren *Poesia mugikorra* izeneko pintura erakusketa. Bertaratu nahi dutenek 19:30ean izango dute hitzordua. Gaur hasi eta apirilaren 22a bitarte, beraz, artista honen koa-droak ikusgai jarriko dituzte bertan, 17:30etik 20:30era, astelehen eta jaiegunetan izan ezik.



*Poesia mugikorra* erakusketa inauguratuko du gaur Zalduak. HITZA

## TOLOSA ▶

**Zumardi-Amalur jardunaldien bigarren hitzaldia**

Jesus Torquemadak eskainiko du, gaur, 20:00etan Kultur Etxean, Zumardi-Amalur jardunaldiari dagokien bigarren hitzaldia. *Zuri bat Afrikako bihotzean* izenpean, eta Juanma Goñi moderatzaile lanetan dela, Ekialdeko Afrika izango du hizpide nazioarteko politikagintzan eta bi-daietan berezitutako kazetariak. Eztabaidarako tartea ere izango dute bertaratuek.

## EUSKARA ▶

# 'Bai Eskolak Euskalduntzeari' kanpaina abiarazi dute

«Euskararen ofizialtasuna aitortzea eta gauzatzea» helburu duen sinadura bilketa «indartsua» burutuko dute eskualdean barrena, etzi, larunbata



Juan Manuel Erasun *Bai Eskolak Euskalduntzeari* kanpainaren alde sinatzen. I. TERRADILLOS

## NOELIA LATABURU

*Bai Eskolak Euskalduntzeari* sinadura bilketa kanpaina eskualdera heldu da eta herenegun iluntzean aurkeztu zuten, hain zuzen, Tolosako Kultur Etxean. Bertan izan zen, besteak beste, Juan Manuel Erasun kirolaria, bere atxikimendua emanez. Helburua «Tolosaldeko txoko guztietara zabaltzea» izango da, ikastetxeetan, kaleetan, lantegietan, euskaltegietan... sinatzeko aukera izan dadin. Maiatzera bitarte luzatuko dute kanpaina Euskal Herrian, baina etzi, larunbatarekin, «bereziki indartuko» dute kanpaina, gure eskualdeko herrietan. «Euskaraz ikasteko eskubi-

dea Euskal Herri osoan bermatua izan dadila» aldarrikatzen dute, ikas maila guztietan eta bereziki derrigorrezko hezkuntzan. Halaber, herritar orori euskara ezagutzeko eskubidearen beharra azpimarratu dute; izan ere, «eskolak belau-naldi berriak euskaldundu behar ditu».

Ekimen hau abiarazteko Eusko Jaurlaritzak iaz egindako azterketaren «datu gordinak» hartu dituzte aintzat: A, G eta X ereduetan inork ez zuela proba gainditu, B ereduaren %67ak eta D ereduaren %32ak. «Gaur egun Euskal Herrian hizkuntza ereduaren bitartez milaka haur eta gazteren hizkuntza eskubideak» urratzen dire-

la ondorioztatu dute eta, beraz, ikaslearen gehiengo zabalari euskara ezagutzeko eskubidea urratzen zaioa.

Hori dela eta, euskararen ofizialtasuna aitortzea eta gauzatzea eskatuko dute, «egun, euskalduntzea bermatzen ez duten hizkuntza ereduaren politizko prozesuak irekiz aldaketa bidean urrats bila».

**Deialdi berezia erakundeei**

Hiru ardatz aipatu nahi izan zituzten, halaber, ekimenaren aurkezpenean, kanpainaren nondik norakoak azaltzeko: batetik, «euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza» dela; bes-

## DATUAK

Lakuaren emaitzen arabera iaz A, G eta X ereduaren inork ez zuen proba gainditu; Bn %67ak eta Dn %32ak

etik, «berezko hizkuntza ezagutzea nazioartean onartutako giza eskubidea» dela eta, azkenik, «Derrigorrezko Hezkuntzako herritarrei oinarritzko ezagutzak bermatu» behar dizkiela.

Euskal Herrian hezkuntza arloko eskumenak dituzten erakundeei eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako eta Frantziako Gobernuari zuzentzen dute kanpaina. Bai eta nazioartean hizkuntza eskubideen egoerari jarraipena egiten dieten erakundeei ere. Eta, nola ez, herritarrei deialdia egiten diete, «kanpainarekin bat egin eta euskalduntzearen alde indar egiteko». Izan ere, euskararen «berreskurapenaren bidean urrats berriak» eman ahal izateko «ezinbestekoa zaigu» euskal herritar bakoitzaren sinadura.

*Bai Eskolak Euskalduntzeari* kanpaina babestu duten eragileak honakoak dira: Kontseilua, Euskal Konfederazioa, Oinarriak, Topagunea, AEK, IKA, EHE, UEU, IKAS, LAB, Euskal Irratiak, Sortzen Ikasbatuaz, Euskal Herriak Bere Eskola eta Ikasle Abertzaleak.

## TOLOSA ▶

**ETBren Betizu Karabanak Tolosan hasiko du ibilbidea**

Bihar izango da jai, non tailerrak, jolasak, puzgarriak eta opariak izango diren aukeran

## N. LATABURU

Bihar, ETBko *Betizu* saioak Betizu Karabana izeneko ekimena jarriko du martxan Tolosan. Helburua Euskal Herrian Betizu Klubaren bazkideak diren gaztetxoek elkar ezagutzeko topaguneak sortzea da.

Hala, bihar helduko den karabana tailerrak, jolasak, puzgarriak eta opariak eskainiko dizkie, besteak beste, etxeko txikienei. *Betizu*-ko arduradunek dei egin nahi die herriko zein eskualdeko betizu izan nahi duten haurtxo guztiei, Betizu jaira hurbil daitezten. Halaber, *Betizu* saioa kamerak irudiak grabatzen egongo dira hurrengo asteko saioetan eskaini ahal izateko, Nerea Alias aurkeztzen duten *Zuzen* saioan, alegia.

**Tolosatik Bilbora**

Betizu klubak 72.000tik gora bazkide ditu Euskal Herrian eta Tolosan 1.020. Honela, Betizu Karabanak Betizu bazkide gehien dituen herrietan barrena ibiliko da. Tolosan hasi eta, ondoren, Zarautz, Errenteria, Hendaia, Atarrabia, Durango, Laudio, Basauri, Santurtzi eta, azkenik, Bilbo zeharkatuko ditu.

TOLOSA ▶ ESPAINIAKO IGERIKETA KOPA ▶

# Barduliako neskak lehenengo mailan lehiatuko dira

Tolosaldea IKTKo hainbat igerilari daude taldean; Usabal kirolegian jokaturako Espainiako Kopan lortu dute igoera



Jende asko bildu zen asteburuan Usabal kirolegira igerilariak animatzera. IMANOL GARCIA

## ESTI EZEIZA

Espainiako Igeriketa Kopa jokatu zen pasa den asteburuan Tolosako Usabal polikirolegian. Igerilekuetan ezohikoa den giroa ikusi zen bertan, bonboek eta tronpetek estali baitzuten kirolarien tentsioa. Hamabi talde nesketan, eta beste hainbeste mutiletan aritu ziren lehen lehenengo mailara igotzeko.

Euskal taldeei dagokionez, Gipuzkoako Bardulia —Tolosaldea Igeriketa Kirol Taldeko (IKT) igerilari batzuk barne dituela—, Nafarroako Amaya eta Bizkaiko Askartzak taldeek hartu zuten parte. Nesketan, Moscardo taldeak irabazi zuen; bigarren postua, berriz, gipuzkoarrentzat izan zen. Hala, «gehiegi kostatzen gabe», IKTKo ordezkarien hitzetan, lehenengo mailara igotzea lortu zuten. Barduliako igerilarien artean sei Tolosaldekoak dira: Amaia Pagola, Ane Etxart, Iraia Privado, Loreto Azurza, Eider Etxart eta Maria Longarte, hain zuzen ere.

Mutiletan, berriz, Barduliak igotzeko aukera asko zituela uste bazen ere, Alcorconek eta Valladolideko Gimnastikoek izabazi zituzten igoerako lehen bi postuak. Beraz, mutilen eus-

kal taldeei dagokionez, Gipuzkoarrak bigarren mailan mantenduko dira, nafarrak eta bizkaitarrak, berriz, jaitsi egingo dira. Tolosaldeko igerilarien artean, Ion Azpiazu soilik aritu zen lehian.

Tolosako Igeriketa Kirol Taldeko Joseba Zubeldiaren esanetan, «espero baino maila altuagoa» egon da, eta Barduliakoek Gipuzkoako eta Euskadiko hainbat errekor hobetu dituzte.

Proba hauetan, lehen bi postuetan geratzen diren bi taldeak lehenengo mailara igotzen dira. Ondorengo lauak berriz, bigarren mailan mantentzen dira, eta azken seiak mailaz jaisten dira. Horregatik, antolatzaileek diotenez, «erazagoa da lehen mailan mantentzea, bertara igotzea baino».

## Euskal Herriko Infantilen Liga

Tolosaldea IKTKo hamairu eta hamalau urteko gazteek bigarren postuak lortu dituzte, bestalde, Euskal Herriko Infantilen Ligan. Mutilek Bidasoa izan dute aurretik, eta neskek Barakaldo. Lau jardunaldi izan ditu Liga honek, eta neskak lehenengo postuan izan dira azken jardunaldira arte. Eskualdeko igerilarien artean, Jokin Otae-

gik eta Eneka Muñagorrik Espainiako txapelketara joateko gutxienekoak gainditu dituzte.

Liga honetan sailkatutako lehenengo hamabi taldeek Euskal Herriko Kopa jokatu dute, Zarautzen, apirilaren 8an.

## Kutxa saria

Gipuzkoako alebin eta infantilen abiadura txapelketa da Kutxa saria. Aurten finala Usabalen jokatu zen, Inauterien ondorengo igandean. Eskualdeko igerilariak dagokionez, taldeko proban mutilak bigarren postuan geratu ziren, eta neskak hirugarren.

Urrezko dominak ere lortu zituzten Tolosaldea IKTKoek: «Itziarrek eta Endikak bizkar eran, Eneka bular estiloan, eta Jokinek krolean». Zilarrezko dominei dagokionez, «eskualdekoen artean Leire izan zen hau lortu zuen bakarra. Josuk eta Joanak, berriz, brontzea eskuratu zuten tximeletan.

Erreleboetako proban, Benjamin mailakoek laugarren postua eskuratu zuten, nahiz eta lehian handia izan. Infantiletan, maila oso altua erakutsi zuten aurkariek. Tolosaldekoak lehenengoak izan ziren, ia hamabost metroko tartea ateraz bigarren.

TOLOSA ▶

## Pirritx eta Porrotx pailazoak badatoz

Tolosako Udalak martxorako antolatutako ekitaldien artean, Pirritx eta Porrotx pailazoak izango dira. Emanaldia hilaren 18an, arratsaldeko seiak eta erdieta izango da, Beotibar pilotalekuan. Pailazo hauek ikusi nahi dituenak lau eurotan erosi ahal izango ditu sarrerak.

TOLOSA ▶

## EHNAREN tramitatzea udaletxean

Euskal Herriko Naziotasun Aitormena (EHNA) egiteko aukera izango da Tolosan, etzi. larunbatean. Eskaera 11:00etatik 13:30ak arte egin ahal izango da udaletxean. Eskaera egin nahi dutenek, hiru argazki (karnet tamainakoak), erroldaren ziurtagiria eta 15 euro eraman beharko dituzte. Errolda agiria aurretik eskatu behar da, udaletxean bertan.

TOLOSA ▶

## Udaberriren erromeriarako tiketak salgai

Apirilak 1ean egingo dute Udaberri dantza taldekoek urteroko Erromeria. Egunean zehar hainbat ekitaldi egingo dituzte Tolosako kaleetan. Jaiari amaiera emateko afaria antolatu dute Abastos plazan. Bertara joan nahi duenak Kimetz arropa denda eta Garikano zapata denda dituzte tiketak salgai dagoeneko. Hauek 20euroko salneurrian daude.

VILLABONA ▶

## Saharako egoerari buruz hitzaldia

Beñat Hach Embarek-ek hitzaldia eskainiko du gaur, arratsaldeko zazpitan, Villabonako Gaztetxean. Bertan Saharako errefuxiatu kanpamenduetan bizi den egoera izango da mintzagai. Hitzaldiarekin batera, mahai ingurua ere izango da, joan direnen iritziak entzuteko.

TOLOSA ▶



Tolosako txirrindulari talde berria Berazubiko zelaian. INIGO ASENSIO

## Nesken txirrindulari talde berria

Atzo arratsaldean aurkeztu zuten Tolosakoek aurtengoan errepidean ariko den nesken txirrindulari talde berria. Taldea hamahiru partaidek osatuko dute: Ainhoa Pagola tolosarrak, Virginia Lotina bilbotarrak eta Sonia Villanueva Zizur Nagusikoaz gain, Chari Rodriguez, Estefania Perez eta Conchi Fernandez andaluziarrek osatuko dute elite mailako taldea. Junior mailan lehiatuko dira Udane Sarasola anoetarra, Maider Oteiza azkoitiarra, Maria Altuna billabonatarra, Iraia Azkue Zizur Nagusikoa, Silvia Martinez mirandarra eta Tatiana Carmona andaluziarra. Kadete mailan, Ana Usabiaga ordiziarrak izango da taldekide bakarra. Guztiak Agustin Pagolaren zuzendaritzapean ariko dira. Inaki Arratibel Tolosa CFko lehendakaria ere aurkezpenaren egon zen.

IKAZTEGIETA ▶ HEZKUNTZA

# Haur Eskola zerbitzu askorekin martxan da

0 eta 2 urte bitarteko sei haur daude jada hezitzaileekin, berez hamar umeentzako da Haur Eskola



Haur eskolak txoko ezberdinak ditu: haur bat jostailuekin behatzen ari da. HITZA

## NEREA URBIZU

Urtarrilaren 9az geroztik Ikaztegieta Haur Eskola martxan da. Kiroldagiko eskuineko parteko lehenengo solairuan kokatua dago. Azpialdean jangelago, eta goiko allean aritzen dira txikiak gizarteratzeko bidea jorratzen.

Eraikin berean Ikaztegieta Udalak honako instalazio berriak egin ditu: erabilera anitzeko aretoa, lo aretoa, haurrentzat egokitutako komunak, aldagelak, jangelago, zaintzaileentzako komunak eta arreta bulegoa.

Haur Eskolaren kudeaketa Haur Eskolak Partzuergoaren

bidez egiten da; hau da, Ikaztegieta Udalak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta Nekazaritza Sailarekin hitzartutako lakindetza hitzarmenaren bidez.

Haur Eskola zerbitzuak 0 urtetik 2 urterainoko haurrei eskaintzen zaie, eta gehienez ere 10 haur jaso ditzake instalazio honek. Momentu honetan herriko 5 haurrek jasotzen dute zerbitzua. Lehentasuna herrikoek badute ere, Tolosako bat ere badago; izan ere, beti ere lekua egonez gero, kanpokoentzat ere zerbitzua zabaldu dutela jakinarazi diote HITZARI Haur Eskolakoek.

Orduetgia goizeko zortzieta-

tik arratsaldeko sei eta erdiak arte luzatzen da.

Bi neska daude sei haur hauekin, zainketa eta hezkuntza lanetan: Miren Samaniego eta Arrate Martinez euskaldunak, alegia.

## Haur eskolaren beharra

Azken bi urteetan jaiotze tasa asko igo da herrian. Azaldu dutenez, «normalean 2 edo 3 haur jaiotzen zen urtero, eta azkenaldian 7 eta 10 haur jaio dira urtean». Hori ikusita eta jendearen eskaerei erantzuna emanik, haurtzaindegia beharra aurreikusituz zuten Ikaztegieta.

PILOTA ▶

## Berria Txapelketako jardunaldia, atzeratuta

Hilaren 25-26an jokatu du Aurrera-Saiaz eskolak euriagatik atzeratutako kanporaketa



Belloso-Oteiza bikoteak senior mailako partida jokatu du. N. URBIZU

## N. URBIZU

Bertan behera geratu zen asteburu honetako Aurrera-Saiaz partida Berria Pilota Txapelketan, euri jasa zela-eta Altzako pilotalekuan putzuak eratu baitziren. Beraz, Lemoakoen kontra jokatzea gaur burutzea erabaki zuten. Momentuz, Burlata da aurrera egin duena asteburu honetan; izan ere, beste guztiak ez dira aurrera eraman, arrazoi bera-gatik.

Beraz, gaurkoan, Altzako frontoian, 19:00etatik aurrera, kadeteen mailan Aurrera-Saiazeko Oiarzabal eta Agiriarno arituko dira jokoan Lemoakoen kontra. Ondoren, jubeniletan Telletxeak eta Galarragak jokatu dute. Oteiza eta Beloso izango dira, azkenik, senior mailako norgehiagokan.

Aurrera eginez gero, finalerdietan ariko dira Bidegoiango eta Tolosako pilota eskolako-

ak eta hurrengo asteburuan jokatu dute, 25ean eta 26ean. Zugarraldekoen ondolanolabaitako desabantailan daudela esan daiteke.

Bestalde, asteburu honetan Behar-Zana pilota eskolarekin jokatu dute Udaberria Txapelketa. Derbi interesgarria izango da ikusteko. Amasako Udal pilotalekuan, bihar, 21:15ean, lehen mailako afizionatuak eskuz binaka ariko dira: Behar-Zana (Lizaso-Iraeta) eta Aurrera-Saiazeko bikotea.

## Euskadiko Kluben artekoa

Aurrera eraman ahal izan ziren, dena dela, Euskal Herriko Kluben Arteko finalak: Zornotzan aritu zen Ruben Zapirain, eskuz banakako senior mailan, eta irabazle izan zen, 22-12ko emaitzarekin. Bermeotarra aise garaitu zuen.

Berriz ere, maila ona erakusten ari dira pilotari hauek.

## hilberria ▶

**Juana Gartziaarena Arregi**  
(andrea)

Atzo hil zen, 74 urte zituela. Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.  
—Golan bego—

Bere senarra: Joxe Martin Aiestaran; seme-alabak: Begoña eta Nikolas, Juanito eta Maxux, Josune, Pilar eta Jose Luis; bilobak: Naiara, Maider, Maitane, Julen, Orkatz, Aitziber, Irati eta Mattin; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela GAUR OSTEGUNA, arratsaldeko BOSTETAN, BERASTEGIKO SAN MARTIN parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

BERASTEGIN, 2006ko martxoaren 16an

hilbidetza ▶ Modesto-enea etxea  
oharra ▶ gorputz belia Berastegiko hilerriko tanatorioan dago

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

# Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

VILLABONA ▶ LITERATURA

# Bertso-Ipuin Sariketa, «idazteko trebetasuna sustatzeko» asmoz

Euskara eta Hezkuntza Batzordeak antolatu du lehiaketa; lanak aurkezteko epea apirilaren 7an amaituko da

ERREDAKZIOA

Villabonako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Batzordeak Bertso-Ipuin Sariketa antolatu du, «ikasle gaztetxoaren artean idazteko trebetasuna sustatzeko». Herriko ikastetxeetan ikasten duten haurrek parte hartu dezakete, LHko 2. eta 3. ziklokoak eta DBHko 1. eta 2. ziklokoak.

Gaia librea izango da, bai bertso sailean bai ipuin sailean. Euskaraz idatzi behar dira lanak. Neurriari dagokionez,

LHko 2. eta 3. ziklokoek ipuina zein bertsoa neurri librean egin dezakete. DBHkoentzat, berriz, ipuinak gutxienez bi orrialde izan behar ditu eta hiru gehienez; bertsoak, lau estrofa gutxienez eta sei gehienez. Parte-hartzaileak lan bakarra aurkez dezake.

Idatziak aurkezteko epea apirilaren 7an amaituko da, eta udaletxeko Euskara Zerbitzura edo ikastetxera eraman daitezke. Lanak sinatu gabeak izango dira, eta izenburua eta izengoi-

ti bat izango dute. Honetaz aparte, kartazal baten barruan benetako datuak —izena, helbidea, telefonoa, ikastetxea eta maila— eta kartazalaren azalean, izenburua eta izengoitia jarri beharko dira.

Behin betiko erabakiak maitez jakinaraziko dituzte. Sariak ziklo bakoitzeko banatuko dituzte, lehenengoarentzat, ordenagailurako jokuak; bigarrenak kirol materiala jasoko du; eta hirugarrenak eskolako materiala.

ANOETA ▶

## Xake ikastaroa larunbatetan

Iaz bezala, herriko festetan xake txapelketa antolatu nahi du Udalak. Entrenatzen hasteko, ikastaro bat antolatu dute hilaren 25etik ekainaren 10era, larunbat arratsaldeetan, LH1etik aurrerakoentzat. Prezioa 20 eurokoa da, eta murriztapenak ere izango dira. Izena emateko, udaletxean edo ikastolan, hilaren 20a arte.

BALIARRAIN ▶

## Txekor jateari buruzko bilera bihar udaletxean

Urtero legez, txekor jatea prestatzen ari dira Baliarriainen. Horretarako bilerara deitu dute biharko udaletxean, 21:00etan. Antolatzaileek herritarrei bilerara joateko deia zabaldu diete.

BIDEGOIAN ▶

## Dantzarien emanaldia Azkoitian

Bidegoiango dantzariak —9 urtetik 14 urtera bitartekoek— emanaldia eskainiko dute, bihar, Azkoitiko Baztartxo antzokian, 19:00etatik aurrera.

ZIZURKIL ▶

## Uraren autobusa Pedro Mari Otaño plazan, bihar

Uraren autobusa izango da bihar, Zizurkilen, Pedro Mari Otaño plazan. Goizean zehar herriko ikastetxeetako ikasleek bisitatuko dute, eta 16:30etik 20:00etara jendearentzat egongo da zabalik.

**ILUSIO Kreditua** EUSKADIKO KUTXA

asegurua auto  
**AUTOA** bidaiaria  
oporra  
**Kabrioleta** gutiziaz  
Furgoneta Ametsak

**Nahi baduzu,**

Zu bezalako jendeak bere **Ilusio** Sariketa antolatu du Euskadiko Kutxan, eta bertan oso mailegu berezia.

**KREDITU ILUSIOA ESKAINTZA**

Epea	Interes nominala	
1 urte:	<b>%2,98</b>	<p style="font-size: 2em; font-weight: bold;">%4,96 U.T.B.</p> <p>Irekiera-komisioa: %1 Komisioa alde aurretik amortizatzeagatik: %0 Komisioa alde aurretik kitatzeagatik: %0 Gutxieneko zenbatekoa: 9.000€</p>
3 urte:	<b>%4,19</b>	
5 urte:	<b>%4,44</b>	
7 urte:	<b>%4,55</b>	

Eskaintza hori lortzeko ezinbestekoa da Nomina helbideratzea eta Euskadiko Kutxaren bitzitza-asegurua bat kontratatuta edukitzea, eta bere Aurrezpen, Aurreikuspen edo Pentsio Planetako beste produktuaren bat.

06-03-13tik aurrera egindako eragiketarako eskaintza, 10 milioi eurora iritsi arte. Berrito finantzatzeko eragiketarako alde batera utzita.

R.B.E. n.º 85806

Zurekin elkarlanean

## BELAUNTZA ▶

## Herriko kultur eskaintza aztertzeko bilera

Belauntzako gazteei zuzendutako bilera izango da gaur, 20:00etan, Kultur Etxean. Egun Kultur Etxeak duen eskaintza —rokodromoa eta eskaladako material mailegua, liburutegia, KZgunea, eskolako lanak egiteko ordenagailua...— ezagutzera emango dute, eta etorkizunearan sor daitezkeen ekintzak proposatzeko aukera izango da. Adin mugarik gabe gazte sentitzen diren guztiak parte hartu ahal izango dute bileran.

## OREXA ▶

## Tutorearen bisita izango du gaur KZgunek

Gaur izango da udaletxeko ganberan kokaturiko KZgunean tutorearen bisita. Hain zuzen ere, 16:00etatik 20:00etara izango da bertan.

## TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))  
Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.
  - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
  - ▶ San Esteban: 006800
  - ▶ Gernikako arbola: 006900
  - ▶ Amarozk dispens.: 672637
  - ▶ Asunzion Klinikak 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - ▶ DYA: 672536
  - ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

- ▶ Garraioak.
  - ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ▶ Besterik.
  - ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

## BERROBI ▶ KULTURA

## «Udal liburutegia erabiltzea ohitura bilakatu da herrian»

Erabiltzaile eta mailegu kopurua handitu ditu 2005ean; egun, liburutegien sare nazionalan sartzeaz dago

IÑIGO TERRADILLOS

Bi egunetan, astearte eta ostegun arratsaldetan, irekitzen ditu Berrobiko liburutegiak bere ateak, eta berriro ixten dituen arte etengabeko mugimendua izan ohi du. «Eskolatik irteten diren gaztetxoentzat nahiz gurasoentzat ohitura bilakatu da bertara joatea». Hala dio liburutegiko arduradunak.

40 erabiltzailetik gora dira irakurtzera, margotzera, etxeko lanak egitera, liburuak eskatzera... joaten direnak; «kopuru hori mantentzea lortu dugu, eta oso gustura gaude; gainera, 2004ko datuekin alderatuz, bai erabiltzaileak, bai eta maileguak ere gehiago izan dira». Bestalde, iaz izandako berrikuntzen artean, material aldaketa azpimarratzen du liburutegiko langileak «beharrak» baitziren; «Internet daukagu, eta ordenagailua eta impresora berriak jarri dizkigute».

Hain zuzen ere, berrikuntza horiek behar zituzten, besteak beste, Euskadiko liburutegi sistema nazionala osatzen duten liburutegien sarea on line proiektuan egon ahal izateko. Berrobiko liburutegia sare horretan egongo bada ere, oraindik ez da erabiltzen hasi, baina



Hiru gazte irakurtzen Berrobiko liburutegian. I. TERRADILLOS

hastear daude; «sarean egoteak abantaila handiak ekarriko dizkie erabiltzaileei, liburuak aurkitzerakoan eta liburutegi desberdinen artean egongo den elkarlanak emango duen erraztasunagatik ere».

## Urteko egitaraua

Aurten ere hainbat ekitaldi antolatuko dituzte Berrobiko liburutegian. Batetik, xake eta marrazki ikastaroak egiteko aukera dute gaztetxoek; xake

ikastaroarekin urtarrean ekin zioten eta maiatza bitarte iraungo du. Marrazki ikastaroa, berri, martxoan hasi da eta apirilean eta maiatzean aridena dira marrazkiak eta koloreak lantzen. Gainera, ekainean eta uztailan, aurreko urteetan bezala, herriko festetako egitaraurako marrazkiak lantzeko ikastaroa egingo dute. Marrazki ikastaroa amaitzean, bertan egiten dituzten marrazkiekin erakusketa bat jarriko dutela ere iragarri dute.

## DATUAK ▶

2004. urtearekin alderatuz, erabiltzaile kopurua handitu du iaz Berrobiko liburutegiak; hain zuzen ere, 228 erabiltzaile gehiago izan zituen 2005ean.

Erabiltzaileak	Kopurua
Helduak	791
Haurrak	1.491
Guztira	2.282

Sexua	Kopurua
Gizonezkoak	961
Emakumezkoak	1.321

Maileguak	Kopurua
Euskaraz	309
Erdaraz	86
Denera	395

Bazkideak	Kopurua
Berriak	15
Guztira	122

Fondoa	Kopurua
Euskaraz	1.873
Erdaraz	194
Guztira	1.679

Liburu berriak	Kopurua
Berrobiko Udalak	43
Eusko Jaurilaritzak	28
Herritarrek utzitakoak	34
Guztira	105

Bestalde, apirilean Haur Liburuaren Eguna ospatuko dute; «bi ekitaldi hauek mailegua indartzea izaten dute helburu, eta emaitza onak jaso ohi ditugu». Halaber, apirilean eta maiatzean IV. Literatur Lehiaketa egingo dute.

Ekitaldi horiez gain, urtean zehar ipuin kontaketa saioak ere antolatzen dituzte Berrobiko liburutegian. «Jende askok hartu ohi du parte, eta horregatik urtean bi edo hiru saio egingo ditugu».

## BERASTEGI ▶ KULTURA

## Kontsumo tailerrak gaztetxoentzat

I. Terradillos ▶ Pasa den astean Berastegiko Muñagorri eskolako ikasleak kontsumo tailerretan murgildurik egon ziren. Hala, xaboa nola egiten den, etiketak nola lantzen diren eta analisiak egiten ikasi zuten, besteak beste. Ikasleentzat ezezik gurasoentzat ere antolatuko zituzten ekitaldiak; *Ikas dezagun seme-alabak ongi elikatzen* izan zen nagusiek parte hartu zuten hitzaldiaren gaia, hain zuzen ere. HITZA



## GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Leitzari buruz,  
albistek

Den-denak zuzen eta ongi emanen ez da erraza, baina ahalegin-duko naiz nire baitan dauzkadan ahal den modurik egokienan agertzen.

Nola ez, neroni Leitzako seme izanik; beti zorretan bititu naiz orain artean zorioneko leitzarrek eta aurrerantzean ere, hala beharko dudalakoan nago. Alde batera, lotsa pixka bat ematen dit pentsatzen jartzen naizen baikoitzean, buru makur eta serio-tasun handiz; hurrengo txandan, berriz, udaberriaren kukua zuhaitz gainetik kantari ari den bezain gustura. Lehen ere omenaldi bikainak badituz jaso-ak Leitzan, sekulan edo bizirik

irauten dudan bitartean ahaztu ezin nitzakenak eta azkeneko aldiz 2006. urtean, martxoaren bosgarren egunean egin zitaduten hau, estimatu dut ezin gehiago, aurreko denak bezalaxe.

Ez nekien omenadia neukanik aurrez, baina zineman antolatut zuten; udaletxeko plazako arkupean lehenengo, diodan omenaldia, baina elur lapatxa zegoen eta hotz egiten zuen benetan, urte-garaiari begiratzea nahikoa da horretaz jabetu ahal izateko. Goazen bada, zinema barruan zer gertatu zen adierazteko.

Gure zain zeuden leitzarrak, eta berehalaxe agindu ziguten tranpailura igotzeko. Gu, Oriotik, nire seme Euxebio, alaba Maria Pilar, bere seme Manuelxo eta honen andregai, denok eserita

jarri ginen oholza gainean; bost ginen guztira.

Berehalaxe agertu ziren txistulariekin batera, dantzari eta ikastolan ari diren bertsolari gazteak (neska eta mutil). Diodan gazte hoiek hiru-lau bertso kantatu zituzten oso poliki. Ondoren, bi mutil eder hasi ziren bertsoetan; gustatu zitzaizdan nire gorantz osatu zuten bertso saioa!

Era berean, Leitzan bertan jaso nituen erregaliak: herriko alkateak, lauki edo kuadro eder batean sartutako Leitzako herri osoaren argazki bat agertzen da guztiz estimagarria; eskerrik asko. Euskal Herriko makil bat —liluragarria benetan— ere eman zitaduten, eskerrik asko berriro!

Hara hemen jarraian, omenal-

diaren ospakizuna antolatzeke, zenbat elkarte edo laguntzaile izan nituen: Leitzako Kultur Taldea, Aurrera Kirol Elkarte, Leitzako Udala, Leitzaldeko Euskara Zerbitzua, Torrea Elkarte, Etxe Txuria Elkarte, Orain Elkarte, Korneta Elkarte, Leitzako Jubilatuen Elkarte.

Beraz, orain ikusten dut Leitzan ez naizela seme sobratua eta honetan bukatu genuen goizeko ekinaldia; eskerrik beroek han bildu zineten denei!

Pasa gaiten bazkariaren edertasunera: han ziren hangoak! Zarauzko Andoni Egaña, bertsolari txapeladuna eta Azeitiko Sebastian Lizaso, kafeak hartu ondoren irrikaz zeuden bertso-tan hasteko. Bertso ederrez gozatarazi zuten jatetxean elkar-tu zen jende talde handia: ai zer

nolako saio bikainak egin zituzten. Bi bertsolari horiek, indar handian daudela igerrir nion nik; elkar laguntza ere dotore egiten dute: hori zerk ekartzen ote du? maitasunak nire ustez. Luzaroan jarrai dezatela Euskal Herriko bertsozaleen gozamenerako kantatzen. Horixe opa die Lasarte zarrak.

Hemen ere, beste erregali asko jaso nituen; denak izendatzea, toki ezagatik ezinezkoa da eta izendatu gabe geldituko direnak, barkatzea nahi nuke.

Berriro ere leitzarren sende nahi nuke izan: laster San Tiburtzio pestak badatoz eta onar ditzagun leitzarrok umore on eta elkartasun osoan.

Agurtzen zaituztet besarkada bero baten bidex.

MANUEL LASARTE ▶ ORIO

## LEITZA ▶ KULTURA

'Manuelen uzta' kantuan  
eginez erakutsiko dute

Lasarteren bertsoak kantatuz, bihar mahai-ingurua eginen dute erakusketa aretoan



Bertso eskolakoeekin Lasarte, bere omenaldi egunean. JAIONE ASTIBIA

## J. ASTIBIA

Manuel Lasarteren bertsoak kantatuz ezagutzeko aukera eskainiko dute bihar arratsaldean, 19:00etatik aurrera, hari buruz erakusketa jarrita dagoen aretoan bertan, hain zuzen ere, Manuel Lasarte: *bitzita eta sorkuntza* lan hori bera prestatu duten egileen eskutik.

Martxoaren 4az geroztik zabalik dago erakusketa Leitzako udaletxeko batzar aretoan; hala egonen da hilaren 26a arte. Horretaz baliatuz, Lasarterekin egun-pasa egin zuten moduan, oraingo honetarako hitzaldi-mahai-ingurua presatut dute Kultur Taldekoek: Julian Beloki, Iñaki Zubizarreta eta Iñaki Hernandez etorriko dira, erakusketaren egileak, eta (hitzaldia baino, Lasarte-

ren bertsoak ezagutzeko nahi dutenez, entzuterat eman eta bertaratuko direnekin batera kantatu egin nahi dituzte: bertsoen nondik norakoak azaldu eta, batez ere, kantatu.

## Bertso kantari

Horrela, «esan daiteke, bertso kantaldia izanen dela ostiralekoa».

Jakinarazi dutenez, bestalde, erakusketan bertan, irekita dirauen bitartean, —astegun 18:00etatik 20:00etara eta igandetan 12:00etatik 14:00etara—, Lasarterekin idatzitako liburuak, «idatzi dituzten zortzi zatik bost», salgai daude, «edizio zaharrak izanik, lillian Beloki, Iñaki Zubizarreta eta Iñaki Hernandez etorriko dira, erakusketaren egileak, eta (hitzaldia baino, Lasarte-

## GAZTERIA ▶

Gazteak Olinpiadak  
prestazen ari dira

Hilaren 25ean jokatu dituzte, goizez eskualdekoak, Leitzan, eta arratsaldean, Irunberrin, Nafarroako finalak

## JAIONE A STIBIA

Datorren igandean zortzi jokatuko dituzte Leitzako, Aresoko eta Goizuetako gazteek Gazte Olinpiadak, Leitzako plazan: eskualdekoen arteko lehiaketa eginen dute. Goizean irabaztun atertzen den taldeak arratsaldez Irunberrin jokatuko daburte finalean parte hartuko du, eskualdearen ordezkari gisa. Sailkapena eta finala egun berean jokatuko dituzte, beraz.

Aurreko asteburuan jokatze-koak zituzten Gazte Olinpiadak Leitzaldean, Euskal Herri osoan bezala, baina «Anguloren eta Saizen heriotzak zirela eta euskal preso politikoekin sakanaketaren aurka Portugalen manifestazio deialdia zegoenez egun horretan [martxo-

aren 11az] jardunaldiak atzeratu egin genituen», azaldu dute antolatzaileek. «Nafarroako finala 25erako izendatuta zegoen lehenagotik, Irunberrin. Hori ez da mugitu. Eskualdeetakoak egiteko egun horretako goiza aukeratu dugu, horrela eskualdeetan aurrea eta arratsaldean, Irunberrin, bertako Gazte Eguna baten, herrialdeko finalak eginen dira», argitu dute era berean.

Goizean Leitzako plazan, beti ere «taldekideen arteko lankidetzaz sustatuko duten jokoa», eginez, hiru herrietako taldeen arteko lehia izanen da.

## Irunberrira autobusez

Eta gero, «hor irabazle ateratzen den taldeari finalera la-

gutzera jateko», autobusa jarriko dute iragarri dute. Irunberrin, gainera, herri-afaria izanen omen dute.

Leitzako, Aresoko eta Goizuetako gazteek jokoetan parte hartu nahi izanez gero, izena emateko epea ireki dute berriro, hurrengo 20a arte. Torrea eta Gaztañaga tabernetan egin daiteke hori. Gogora ekarri dutenez «taldeek 8 partaidetik gorakoak izan behar dute, eta parekideak beti»; iskripzio-kuota 40 eurokoa da taldeko, egunean ordaintzeko.

Jakitera eman dutenez, dagoeneko, Leitzatik bi talde eman dute izena; Aresotik beste batek; eta Goizuetatik beste bi etorriko omen dira: «oraindik badago beta».

## iragarki laburrak ▶

## LANA

**Tabernaria.** Anoetan, neska euskalduna behar da tabernan 4 orduz lan egiteko. Eskarmentua duena. 635 74 52 91ra.

## ESKARIKAK

**Pisua.** Pisu edo apartamentu bila nabil, leihoak iparralderantz dituena. 678 25 05 66.

## SALGAI

**Furgoneta.** Furgoneta salgai W-Kalifornia: 5 TDI, 2002koa. Oso egoera onean. Deitu 626 73 73 77ra.

## ALOKERAN

**Garajea.** Garaje itxia alokatzeko Iruran. Interesatuak deitu 646 48 76 01era.

▶ TOLOSALDEKO  
HITZA.INFO

**Atal desberdinak.** HITZAKO webean, hainbat atal bisita ditzakezu, eguneko berriak irakurtzeko aukera izateaz gain: eguraldia, agurrak, Irudietan, agenda, merkatu txikia, zerbitzuak... eta beste HITZA egunkariaren zuzeneko lotura ere bai. Sartu eta ikusi!

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko martxoaren 16a, osteguna ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



goizez



arratsaldez



beroena

12

hotzena

08

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN



Guardetxe:

gaur: ez / bihar: ez

Pagomari:

gaur: ez / bihar: ez

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila

HITZA-KO BEZEREN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Asteasu.** Abesbatzakoek kantujira egingo dute hilaren 25ean, 12:00etan hasita. Ondoren, bazkaltzeko elkartuko dira. Izen-ematea, 687 27 31 63 telefono zenbakian, hilaren 17a baino lehen.

**Belauntza.** Herriko gazteentzako 2006. urtean antolatu daitezkeen ekintzen proposamenak aztertzeko bilera. 20:00etan, Kultur Etxean.

**Leaburu.** Hilaren 26an bazkaria egingo dute Larrasoroko herritarrekin Asteasuko Sarasola sagardotegian. Izen-ematea, udal bulegoetan (943 67 59 31).

**Tolosa.** Alpino Uzturre elkarteak Ermua-Landa mendi irteera antolatu du iganderako. Izen-ematea, elkartearen (Gudari, 5. 943 65 27 89).

**Tolosa.** Santa Maria kaperak eta Udalak omenaldia egingo diote Pepe Arzelus organistari hilaren 19an. Bazkarirako (Frontonen) txartelak salgai daude Zabala estankoan, Lardiesen eta Santa Maria parrokian.

**Tolosa.** *Tolosako emakume eta gizonen egoera* diagnostikoaren aurkezpena. 18:30ean, Haur eta Gazte Liburutegian (Errota).

**Tolosaldea.** Tolosaldeko 51ko kintoak apirilaren 2an elkartuko dira: 12:00etan meza San Frantziskon, eta 14:00etan bazkaria Mendi Alde jatetxean. Izen-ematea, 943 65 45 92 (Jose Maria Tolosa), 943 52 54 41 (Jose Mendizabal) eta 943 65 17 99 (Mendi Alde) telefono zenbakietan.

### ERAKUSKETAK

**Alegia.** Jose Luis Albizuren koadroak. Hilaren 21a arte, Jubilatuen tabernan.



## 25 zuhaitz landatu dituzte Zuhaitz Egunean

**BELAUNTZA** ▶ Eguraldi txarra zela eta, larunbatean deitutako hitzordura ez zen haurrik agertu; baina, hala ere, Belauntzako udal ordezkariak Zuhaitz Eguna egitea erabaki zuten, atzeratu beharrean. «landareak hondatu baino lehen». Hala, Foru Aldundiak emandako 25

zuhaitz landatu zituzten. Zehazki, bi eremutan: hilerriaren azpialdeko zelaian batetik eta, bestetik, Martintxo baserriaren behealdean dagoen lur eremuan. Argazkian, bi lagun, larunbatean, azken eremu horretan zuhaitzak landatzen, euripean. I. GARCIA

**Leitza.** Manuel Lasarte: *bizitza eta sorkuntza*. Hilaren 26ra bitartean, udaletxeko batzar aretoan.

**Tolosa.** Dorleta Ortiz de Elgearen pinturak. Apirilaren 1a arte, Aranburu Jauregian.

**Tolosa.** *Poesia movil*. Enrique Zalduearen pintura erakusketa. Gaur inauguratuko dute, 19:30ean, Aranburu Jauregian. Apirilaren 22ra arte izango da ikusgai bertan.

### HITZALDIAK

**Tolosa.** *Una herida en el corazon de Africa* izeneko solasaldia. Jesus Torquemada kazetari eta bidaiari donostiarraren eskutik. 20:00etan, Kultur Etxean. Afrika Ekialdeari buruzko Amalur jardunaldien barruan.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

### Gaur

Leitza. Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

Tolosa. Olarreaga, J. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.

### IRRATIA

**Txolarre (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza:* HITZAREN errepasoa, eguraldia Joxe Landarekin, agenda, elkarrizketak, disko eskainiak...  
 21:00-22:00. *Gora Euscadi Txistulari,* Matraiaiko Irratiaren saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.  
 22:00-23:00. *Gau bero* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

## GALTZAUNDI ▶




**Aldizkaria.** Galtzaundi.  
**Zenbakia.** 231.a (2006ko martxoaren 10a).  
**Orrialdeak.** 24.  
**Tirada.** 5.000 ale.  
**Gai nagusia.** *Fede, Sergioren lagunik onena.*  
**Beste gaiak.** Jone Hernandez Berdintasun teknikariarekin solasean, poesia emanaldia prestatzen, Jose Ramon Arteta, TAFEKO arraunlariak maila onean...  
**Argitaratzailea.** Galtzaundi Euskara Taldea.  
 ▶ Nafarroa etorbid., 6-behea.  
 ▶ 943 65 50 04  
 ▶ galtzaundi@galtzaundi.com  
 ▶ www.galtzaundi.com

## AIURRI ▶



**Aldizkaria.** Aiurri.  
**Zenbakia.** 252.a (2006ko martxoaren 10a).  
**Orrialdeak.** 28.  
**Tirada.** 2.500 ale.  
**Gai nagusia.** Emakumearen Nazioarteko Eguna.  
**Beste gaiak.** Etxebizitza berriak Adunaren, Euskararen Astea Otaño ikastetxean, Herri Olinpiadak Amasa-Villabonako Onddo Gazte Asanbladarekin, Aiztondo Klasikoa, Inauteriak iruditan...  
**Argitaratzailea.** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.  
 ▶ Kale Berria 47, 3. esk.  
 ▶ 943 69 64 50  
 ▶ aiurri@topagunea.com  
 ▶ www.aiurri.com

## AGURRAK ▶



### URTE ASKOAN

Juan Ignazio. Zorionak, hankamehe! Asmau nor garen. Hemendiko, hortiko eta handiko... ondo pasa eguna horratiko!

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzaan Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...